

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info



Osteguna, 2011ko martxoaren 3a. VIII. urtea. 2.184. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Tabernariak ere etxeko lanak egin dituzte Inauterietan lana erruz egiteko

Tolosako jaiak kalean bizitzen direla esan ohi da, baina ez dira gutxi orduak taberna zuloetan ematen dituztenak; tabernariak jo eta su ari dira lanean edariak eta giroa prest edukitzeko 03



Elorri tabernak Zara dendetako itxura izango du Inauterietan. I.GARCIA



I.GARCIA

Tolosako Udalak zarpikoa eskuratu du euskararen erabilpenean

Kontseiluak udalen hizkuntza-politiken bigarren azterketa egin berri du 05

Bertsolamintza ekimena izango da Villabonako Gurean martxoaren 12an

Egun guztian zehar hitzaldiak, eztabaidak eta bertso saioa izango dira 04

→ **Apirilaren 13an pasako dira Euskalakariak Tolosaldetik.**

Bi urte igaro dira jada, azken Korrikatik. Aurtengoa 17. edizioa izango da, eta Iratxe Apac-laza Tolosaldeko koordintzaileak esan duenez, atek zabalduak dituzte lana egiteko prest dauden guztiek, horretarako Tolosako Lizardi elkartera joan behar dute. 07

✂

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info
bertako egunkaria

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behe, atzea · 20400 Tolosa

egin zaitetz harpidedun!

✂

tonbola ibiltaria

TOLOSA
ostegunetik asteartera
Laskoain kalean
San Frantzisko pasealekuaren alboan

euskaraz

klik!



Jose Javier Garcia • Inauterizalea

«Tolosako Inauterietan dagoen giroa ez dago inon»

I. Garcia Tolosa

Jose Javier Garcia 37 urte daromatza txarangetan jotzen Inauterietan. Villabonan jaio eta hamai-ka urterekin joan zen bizitzera Tolosara. Hiru txarangekin ziur jotzen du: Alcoyano, Poca Tripa eta Txaranga del Oria. Kabi Alairekin ere jo izan du. **Galtzaundi** abestia du Inauterikoen artean kuttunena.

Nolako egitaraua izaten duzu Inauterietan?

Ostegun Gizenean eta igandean Alcoyanorekin jotzen dut. Astelehenean Poca Triparekin. Larunbat eta igande gauean Txaranga del Oriarekin ariko naiz. Larunbatean, gainera, danborradarekin ateratzen gara. Asteartean pentsatzen dut Kabi Alairekin aterako naizela, baina oraindik ez dakit.

Ostiral Mehea libratzen duzu, orduan.

Aurten Txaranga del Oriarekin Azkoitira goaz. Handik deitu digute eguerdian pare bat orduz jotzeko, baina ez dakit ziur zer ekitalditan ariko garen.

Urte asko daramatzazu txarange-tan, ezta?

Poca Triparekin 37 urte. Alcoyanorekin 36 urte izango dira eta Txaranga del Oriarekin 28 urte.

Mozorrotzen al zara?

Txarange-tan aritzen naizenean talde bakoitzeko arroparekin jantzen naiz. Bestela ez dut denbora asko izaten. Txilaba jantzen dut eta kito.

Nola bizitzen dituzu Inauteriak?

Oso ondo, oso alai bizitzen ditugu festak, baina azkenean nekatuta bukatzen dut. Dagoeneko ez dauzkate 20 urte eta helikoiak asko pisatzen du, hamabi kilo inguru.

Helikoiak bakarrik jo izan duzu?

Hasieran tronboia jotzen nuen eta gero hasi nintzen helikoiarekin.

Hutsik egin al duzu Inauterietan?

Donostiako Antigua auzoan el-karte bat badago eta urtero danborrada beraiekin jotzen dut. Os-



HITZA

tiraletik asteartera beraiekin Alemaniara joateko deitu didate, hango herri batean danborra jo behar dutela-eta. Nik esan nien ezetz, ez nintzela Tolosatik joango Inauterietan.

Jendea txarangazalea dela esango zenuke?

Tolosan bai ibiltzen dela dantzan eta saltoka jendea. Baina hemendik kanpo jendeak ez du dantza handirik egiten. Entzun egiten du eta txaloak jotzen dizkizu, baina dantza gutxi. Tolosan zezen-plazara joaterakoan eta bertatik ateratzerakoan jende asko elkar-tzen da. Niretzako oso berezia izaten da, txikitatik, lauretan atera udalxetik eta zezen-plazaraino joatea.

Txarangakoei gustatuko zaizue inguruan jendea dantzan izatea.

Jendea inguruan dagoenean gusturago jotzen duzu. Gainera jen-

deak beste bat jotzeko eskatzen dizu eta animatu egiten zara.

Gaue-tan zer giro izaten da txarange-ren inguruan?

Azkeneko urteetan ez da jende asko izaten. Bi txaranga ateratzen gara gaue-tan. Gu goitik ibiltzen gara, Hotel Oria eta Dickens tabernaren inguruan. Jende gehiago izaten da Alde Zahar-rean.

Zer ezberdintasun dago Tolosako Inauterietan eta beste herriko festen artean?

Hemengo giroa ez dago beste inon. Baionan adibidez milaka pertsona izaten dira, denak zurigorri-jantzita, sanferminetan bezala. Inork ez du salto edo dantza egiten.

Sanferminetan ere izan zara txarange-tan jotzen?

Peña Union elkartearekin. Han giroa ere ona izaten da. Jendeak saltoka egiten du, batzuetan gehiegi, bultzatzeraino. **Inauteriak gerturatu ahala, urduritasunik izaten duzu?** Aurretik Donostiako Ibaeta auzoko festetara joan ohi gara eta han Inauterietako pieza batzuk jotzen ditugu. Horrela motorrak berotzen joaten gara.



Inauterietako kartela, urterto bezala Tomas Hernandezek egina. HITZA

Iritsi dira azkenean Inauteriak

Astelehenean izan ezik gainontzeko egun guztietan izango da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

R.C.

Listo, iritsi dira Inauteriak. Ostegun Gizena behar bezala hasteko, gaurkoan bi gauza egin behar dira gutxienez: txistorra jan eta txarange-tan atzetik lehen saltoak eman. Beno, besterik egiten da ere lehen egun honetan, parrandaxoa bota oraindik ere fresko-fresko gaudela aprobetxatuz. Herriko jai garrantzitsu haue-tan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA Inauteri guztietan izango da, astelehenean salbu. Era bere-

an, gaurko udaleko txupinazoa zuzenean eskainiko dugu www.tolosaldeko.hitza.info webgunean, 12:00etatik aurrera.

Eguneroko kronika, argazki eta albisteekin batera bestelako atalik ere izango dugu [www.tolosaldeko.hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko.hitza.info) helbidera eta saridunak Denak tabernan lau lagunentzako afaria irabaziko du.

Jasotzen ditugun argazki guz-tiak www.tolosa.hitza.info izango dira ikusgai. Aipatu behar da, eraberean, jasotako argazki guz-tiak artxiboan gordeko direla, eta HITZAK behar dituzten argitaratu ahal izango dituela.

↓ Gaurko egitaraua

UDALAREN EGITARAUA

- **09:13an.** *Etxe-berriko* oinordekoen Udal Banda.
- **11:30ean.** Udak Txistulari Bandak Inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- **11:45ean.** Kabi-Alai elkarte-ko korporazioaren pregoia.
- **12:00etan.** Plaza Zahar-rean, suzuria jaien hasiera iragartzeko.
- **12:00etan.** Pintxana eta Kabi-Alai txarange-ten irteera, Aroztegieta kale-tik.
- **16:30ean.** Zezen-plazan xe-

- xen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarange alaitua. Ondoren, kalejira.
- **19:30ean.** Iturritxiki plazatik zezen suzkoa irteerako da. Antolatzailea Ero Etxe Elkarte.
- **23:00etan.** Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

TXOSNA GUNEA

- **12:00.** Txistor jatea eta txos-nen irekiera.
- **12:30.** Txupinazoa.
- **21:00.** Zagi sagardo/ardoa.

Iriarte jatetxea

Menu berezia: 33€ + edariak

- Arrain pastel entsalada
- Alkatxofak plantan iberiko urdiazpikarekin
- Arroz saldatua atarrainxa eta txirlekin

• Aukeratzeko:
Legatza plantan barazkiekin
Txerrikume erre

• Postrea:
Gazta tarta magurdi-izozkierekin

Tel.: 943 683 078 • BERRÓBI

KEY-LAN
Sarraigintza

Nafarroa iturb. 13 behean - TOLUSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Edozein festetan tabernak bilgune izaten dira eta Inauterietan are gehiago, jende ugari etortzen baita Tolosara. Tabernariak beraien prestaketak egiten dituzte festei begira.

Jende uholdea jasotzeko prest

Imanol Garcia Tolosa

Inauterietako ezaugarri nagusia mozorroa da, baina bada beste bat festa hauekin erraz lotzen dena: jendetza. Eta festa giroan jendea joan ohi den lekuetako bat tabernak dira. Tabernariak erruz egiten dute lan festa hauetan eta duela egun dezente prestaketak egiten ari dira: biltegia gehiago hornitu, langile gehiago hartu, jakiak prestatzen hasi...

Tolosako Elorri tabernakoak apainketa lanetan harrapatu ditu HITZAK. Aurten taberna Zara etxeko denda bihurtuko dute. Olga Fidalgo arduradunak dioenez, «seigarren Inauteriak dira tabernan gaudela eta urtero mozorrotu gara: zonbitaz, azafatak bezala, bainulari bezala...». Fidalgo garbi du Inauterietan tabernariak ere mozorrotu egin behar direla festan parte hartzeko.

Festak taberna barruan igarotzen ditu. «Ez dut jakiten zer gertatzen den tabernatik kanpo», dio. Lanik handiena prestaketak dira: «Biltegia prestatu, apainketa, mozorroak... Gero taberna irekitzea eta edozein larunbata batean bezala lan egitea da, baina ordu gehiago eta jende gehiagorekin».

Ostegun Gizena azken urteetan asko igotzen ari dela dio Fidalgo. «Hamabiak ondoren jende gazteagoa etortzen da eta gero, gauean, helduagoa sartzen da tabernara». Ostiralean jende gutxiago izaten dela eta azken urteetan larunbatean ere ez dela hainbeste etortzen dio: «Herri bakoitzean zerbait prestatzen dute. Aurten, The Wailers taldearen kontzertuarekin pentsatzen dut jende gehiago izango dela, asko kanpokoak».

Elorrik berez arratsaldeko seietan irekitzen du, baina igandean eguerdian zabalitzen dituzte ateak. Karrozak oso gertu pasatzen dira eta giroa bertatik bertara izaten dute. «Eguraldiak baldintzatzen du kanpoko jendea etortzea igandean», dio. Astelehenekoa, gaupasa eguneko, jende gehien izaten den gaua da. Tabernak 05:30ean itxi behar dute. «Motz

egiten zaie parrandan ibiltzen direnei, baina ordutegia errespetatu beharra dugu», azaldu du Fidalgo. Asteartean jende gutxiago izaten dela dio Elorriko arduradunak. «Gauetz herrikoak bakarrik ibiltzen dira».

Bezero gehiago izaten direnez, langile gehiago ere aritzen dira tabernan. Larunbat batean baino bi lagun gehiago izaten dira barraren atzean. Edariei dagokionez, batez ere kuba-libreak ateratzen dituzte, gaueko taberna delako. Egunean zehar alkohol gutxiago duten edariak eskatzen dituzte bezeroek.

Ehunka ogitarteko

Tolosako Ikatz tabernako Jesus Mari Artutxak dioenez, Inauterietan gelditu gabe egiten dute lan, «goizeko hamarretan hasi eta gaualdera arte». Ostegun Gizenean «jendea gogoarekin hasten da, indartsu», dio Artutxak. Ostirala lasaigoa izaten dela dio, larunbata ere bai eta egunik indartsuena igandea izaten da: «Jende asko etortzen da kanpotik, hiriburutik. Baina osteguna da niretzako egunik politena».

Astelehen gauean ere jende asko izaten dela dio eta asteartean lasaigoa ibiltzen direla. Hain justu, gaupasa egunean kontzertua izango da plaza Berrian eta horrek bezero gehiago erakarriko dituela espero du.

Inauterien ondoko egunetan ere taberna irekitzen du Artutxak. «Gero hurrengo astean pare bat egunez gelditzen gara», dio. Ikatzan pintxoak eta ogitartekoak zerbitzatzen dituzte. «Gure lan handiena eguerdian pintxoak eta arratsaldean eta gauean ogitartekoak ateratzea izaten da». Ostegunean eta igandean, egun bakoitzean 500 ogitarteko inguru zerbitzatzen dituzte.

Langileen aldetik, larunbatean hiru edo lau izaten badira, Inauterietan zortzi aritzen dira eguneroko, batez ere barran. «Sukaldean emaztea aritzen da eta bi edo hiru lagun adina egiten du. Berari laguntzeko pertsona bat hartzen dugu», azaldu du Artutxak. Bestalde, hamabost egun daramatzate prestaketa lanak



Inauterien aurreko egunetan apainketa lanetan aritu dira Elorri tabernan. I. GARCIA



Ikatzan lan handia izaten dute janaria zerbitzatzen. I. GARCIA

egiten: biltegia hornitu, janariak prestatu eta batzuk izoztu...

Taberna zertxobait apaintzen dute eta igandean eta asteartean denak berdin mozorrotzen dira, aurten eskoziarrez. Edariei dagokionez, astelehen gauean txupito asko eskatzen direla nabarmen-tzen du Artutxak.

Eta tabakoarekin zer?

Tabernetan ez erretzea asko errespetatzen dela dio Fidalgo: «Lehenengo festa handia Errege Eguneko bezpera izan zen eta harritu egin nintzen jendearen errespetuarekin. Edozein larunbatean ere ez dut jendea taberna barruan erretzen ikusten. Kanpoan bai, eta horregatik jarri dugu balda bat, jendeak bere edalontziak uzteko».


Gertatu izan zaie jendea ateratzea eta edalontzia barran uztea. «Askotan ez dakizu itzuliko den eta, beraz, edalontzia jaso daite-

keen ala ez», dio Elorri tabernakoak. «Inauterietan ez dut uste inork edalontzia barran utziko duenik».

Artutxak ez daki jendearen jarriera zein izango den Inauterietan. «Orain arte ez dugu arazorik izan. Jendea kanpora ateratzen da. Egun horietan ez dakit zer ger-

tatuko den, baina nik uste dut errespetatuko dutela», azaldu du.

Janaria zerbitzatzen dutenez, asko nabaritu dute orain taberna barruan tabako kerik ez izatea. «Bezeroek ere esaten digute, arropan usainik ez dela gelditzen eta pintxoetan ere nabaritzen dela», gaineratu du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Inauterizale Kuttuna izendatuko dute txupinazoan



lazio Ostegun Gizenean, korporazioko kideak. HITZA

Aurrerantzean urtero egingo dute izendapena txupinazoan, Ostegun Gizeneko korporazioaren eskutik

Itzea Urkizu Tolosa

Gaur hasiko dira Inauteriak eguerdiko 12etako suziriarekin. Aurten, Plaza Zaharrera hurbiltzen diren tolosarrek Inauterizale Kuttunaren izendapena lehenengoz norik jasoko duen jakiteko aukera ere izango dute.

Kabi Alai elkarreak eta Ostegun Gizeneko korporazioak due-la bi urte sortu zuen On Ostegun Gizen pertsonaia, txerria bizkar gainean hartuta joaten den harakin hori. Inauteriei hasiera ematen dien eguna are gehiago indartzea izan zen helburua, eta orain herritarrei eskerrona adierazte-

ko zerbait antolatu dute. Izan ere, «Tolosan hainbat eta hainbat lagun eta taldek egiten dute lan urte osoan zehar, hain maiteak diren Inauterietan parte-hartzea eta girorik onena sortzeko». Beraz, Ostegun Gizeneko konpartsa urte askotan zehar musutruk, eta era anonimoan lan egin duten tolosar horiek guztiak nolabait saritu nahi ditu, eta horren harira Inauterizale Kuttunaren izendapena sortzea erabaki dute. «Euren esfortzua eta lana alferrikakoak ez izatea nahi dugu, eta ez dugu Inauterien izaera eta izpiritu hori itzaltzerik nahi», diote elkarrekoek.

2011. urte honetako Inauterizale Kuttunaren izena ezin izango da gaur eguerdiko hamabi arte ezagutu, txupinazoaren suziri-hotsa entzun baino lehen Ostegun Gizeneko korporazioak udaltxeko balkoian egingo baitu izendapena.

Bertsolamintza ekimena Villabonan izango da hilaren 12an



Bertso saio esperimentalaren izango da. HITZA

Hitzaldiak, eztabaidak, bazkaria eta bertso saioa izango dira datorren martxoaren 12an Gurean

Itzea Urkizu Villabona

Bertsozale Elkarteak laugarrenez antolatu du aurten Bertsolamintza deituriko ekimena, eta martxoaren 12ko ekitaldiak Villabonan ospatuko dituzte egun osoz.

Bertsolaritari buruzko gogoelek eta ikerketek osatzen dute Bertsolamintza, eta laugarren edizio honetan bertso munduko inertzien inguruan ariko dira, besteak beste.

Bazkalondoren bertso saioa izango da, eta bazkarirako nahiz saiorako sarrerak eskuratzeko azken eguna gaur izango da, 943 69 41 29 telefonora deituz, edo a.irastorza@bertsozale.com helbidera idatziz.

↓ Egitaraua

MARTXOAK 12

- 09:00. Elkarretaratzea Gurea Antzokian.
- 09:30-10:00. Andoni Egaña: *Nola gaintzen dira inertzia ideologikoak? Zenbateraino obligatzen dute?*
- 09:45-10:00. Amaia Vazquez: *Inprobisazioaren gozamina: oholtzako bertsolaria nola askatu proiektioetatik eta uanean unekoa gozatu.*
- 10:00-10:15. Eric Dicharry: *Bertsolaritza eta umorea.*
- 10:15-10:30. Egoitz Aizpuru: *Gai-jartzailea emagin? Zenbateraino markatzen du galaren ikuspegiak eta tonuak ondorengo bertsoaldia?*
- 10:30-10:45. Ibon Arrizabalaga: *Gorbata ala amantala erantzita...andre-gizonak bertsotan biluzik?*
- 10:45-11:30. Ekimeneko lehen

bost hitzaldiei buruzko eztabaida irekia.

- 11:30-12:00. Kafea Gurea antzokiko sarreran.
- 12:00-12:15. Jon Martin eta Estitxu Eizagirre: *Zer ikasi behar da bertso eskoletan? Zer deskasiki?*
- 12:15-12:30. Jon Ansa: *Bertsokera(k) eta sistema(k).*
- 12:30-12:45. Oier Araolaza: Txapelketaren kontra.
- 12:45-13:00. Fredi Paia: *Zelan eragiten dio txapelketak sormenari? Epaileak kalitate ziurtagarri?*
- 13:00-14:00. Azken lau hitzaldiei buruzko eztabaida irekia.
- 14:00-16:30. Bazkaria Behar Zana elkartean.
- 17:00-19:00. Bertso saio esperimentalaren: Imanol Lazkano, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus, Jone Uria, Uxue Alberdi, Julio Soto eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaileak: Andoni Egaña eta Egoitz Aizpuru.

Hartu aisia BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako **ERLAXATZEKO BONUA OPARI**

EZAUGARRIAK:

- Talasoterapia zirkuitua
- Erlaxatzeko masajea
- Igande arratsaldetik ostiral eguerdira erabil daitezke

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, **BIZI** EUSKARAZ **berria**

Udaberrik eskualdeko 200 haur dantzari txiki bildu nahi ditu etzi

Erredakzioa Tolosa

Datorren larunbatean, Zaldunita Bezperan, Tolosako Udaberri Dantza Taldeko haurrak kalejira irtegarri dira Tolosako Alde Zaharretik barrena. Azken urteotan egin duten bezala, Tolosaldeko beste haur-dantzari taldeak gonbidatu nahi izan dituzte Inauterietara, denak batera irteteko asmoz. Horrela, goizean zehar 200 haur inguru jarri nahi dituzte dantzan, giro atsegina zabalduz.

Inauterietako trajeak soinean dituztela dantzatzeko dute Udaberriko haurrek Alegia, Ibarra, Anoeta, Lizartza, Irura, Asteasu eta Villabonakoekin batera. Gai-

nera, aurten lehenengoz, Tolosako Musika Eskolako ikasle banda ere eurekin izango da Inauterietara doinu alaiak joaz.

Kalejira 11:00etan hasiko da Tolosako Trianguloa plazan eta dantzan ariko dira kalerik kale

13:00ak arte. Ondoren, Hirukide ikastetxeko Jesuitinen patioara gonbidatuko dituzte haur guztiak, hamaiketako atsegina batekin goiza amaitzeko. Udaberriko guztiak gonbidatu dituzte, «iriz zoragarri horretaz gozatzer».



lazio ere eskualdeko haur ugari bildu zituen Udaberri dantza taldeak. HITZA

→ **Laburrak****Etxeratak elkarretaratzea egingo du larunbatean**

TOLOSA » Euskal preso eta iheslarien senideak elkartzen dituen elkarteak, Etxeratak, elkarretaratzea egingo du Zaldunita Bezperan Tolosako Triangulua plazan, 19:30etik 20:00etara. Eskualde guztian zabaldu dute deialdia eta herritar guztiak gonbidatu dituzte preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenara. Elkarretaratzea 19:30ean hasi eta 20:00ak arte izango dela azpimarratu nahi izan dute.

Bilbora egun pasa eta Lloretera oporretara

TOLOSA » Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarrekin bi irteera antolatu ditu. Bata, Bilbora egingo duten txangoa izango da, martxoaren 29an. Egun guztiko irteeraren kostua, bazkideentzat 31 eurokoa da eta ez direnentzat 34koa. Txartelak hilaren 28a baino lehen erosi behar dira elkartearen. Bigarren irteera, Lloretera antolatu dute. Ekainaren leian abiatuko dira eta 15ean itzuli. Bazkideek 390 euro ordaindu behar dituzte eta ez direnek 6 euro gehiago. Maiatzaren 19an amaituko da izena emateko epea.

Udalaren euskararen aldeko politikak zazpikoa jaso du

Kontseiluak 66 herriren hizkuntza-politikak aztertu ditu; Tolosa 13. postuan aurkitzen da «ongi» batekin

Tolosako Udaletik azaldu dutenez, ezagutzaz gain erabilera bultzatu nahi dute

Asier Imaz Tolosa

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak udalen hizkuntza-politikaren bigarren azterketa burutu berri du. Eskualdean Tolosako Udalaren lana bakarrik jarraitu dute, eta bera, 13. postuan sailkatu.

Kontseiluak 2006an aurkeztu zuen lehen aldiz udalen hizkuntza-politikaren neurketa; hain zuzen ere, 2.000.000 herritarri eragiten dieten 66 udalerriren hizkuntza-politikak. Horrela, lau urte gerorago politika horiek berrikus-

teko garaia iritsi dela uste izan du Kontseiluak; izan ere, «denboratarte horretan udalak osatu dituzten indar politikoei aukera izan baitute hizkuntza-politika eragingarria abiatzeko».

Prozedura «zorrotza» izan dela esan dute Kontseilutik. Udalak hartutako erabakiak, esleitutako baliabideak eta horien emaitzak aztertzeaz gain, herritarrek euskarazko zerbitzua jasotzeko eta langileek euskaraz lan egiteko eskubideen bermea zein neurritaraino dagoen eta nola gauzatu den neurtu da. «Finean, herrita-



Tolosako Udalak ahozkotasa lantzeko akordioa sinatu ia. I. TERRADILLOS

reri eragiten diete udalen hizkuntza-politiken ondorioek. Horrela, hizkuntza-politika bat ezaugarritzen duten hiru zutabeak izan ditugu aztergai: corpus juridikoa, plangintzak eta diru-baliabideak».

Udalerrri bakoitzak lortutako puntuen arabera sortutako sailkapenean, Tolosa 13. postuan aurkitzen da, 7.4127 punturekin. Kontseiluak «ongi» batez kalifikatu du. 0tik 10 arteko notak jarri dira erantzunen azterketa egin ondoren. 0 puntu izateak hizkuntza-politikak euskarari inolako tarterik ez diola eskaintzen adierazi nahi du eta 10 puntuek euskara hutssezko funtzionamendua definitzen du. 7 puntu eskuratzeak adierazten du euskara lehenesteko udalak egiten duen ahalegina.

«Erabilera bultzatzen»

Ondorio argi bat atera du Kontseiluak bigarren neurketa honean eta horrela laburbildu du Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak: «Udaletako hizkuntza-politikak aztertu ostean dagoen egoera hoberen definitzen duen

hitza nahaspila da». «Alderdiak ez dute hizkuntza-politika definiturik: horrek, alderdi berekoak diren bi udalen arteko hizkuntza-politikan 10eko puntuazioaren gainean 7 puntuko aldea egotea ahalbidetzen du».

Ainhoa Etxeberriak, Tolosako Euskara zinegotziak, «nahaspila» honen aurrean herri bakoitzak bere errealitatea duela gogorarazi nahi izan du. Horrekin batera, euskararen ezagutzaren garrantzia azaltu gabe, erabilera azpimarratu du: «Gehienbat erabilera ari gara bultzatzen udaletik, ikusi baitugu ezagutza maila handia dela. Ikastetxeekin ere lanean ari gara. Euskaraz ez dakitenek edo etorkinek, gela barruan ez dute horrenbesteko eragina baina aisialdian giroa eraldundu dezakete. Aisialdian eragina edukiko duten politikak bultzatzen ari gara ondorioz. Adibidez, gazteek euskaraz gehiago hitz egin dezaten, jakin bai baitakite, Mintzola, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin ahozkotasa lantzeko akordioa sinatu gero».

Arropa biltzeko edukiontziak kolorez aldatu dituzte

Orain arte txuriak ziren eta hemendik aurrera, eskualdeko ohiko puntuetan, berdeak izango dira

garriak eta arropa zaharra eta hondatua sar daiteke.

Olioz edo gantzez bustita dauden ehun hondakinak edo trapauek ezin dira sartu.

Jasotako arropa berreskuratu-

tzeko instalazio batera eramaten da, eta bertan sailkatu eta antolatu egiten da. Alde batetik, berreskuratu daitekeen arropa joaten da eta bestetik, berreskuratu ez den arropa, hau birziklatu egiten da.

↓ Edukiontzien kokapena

TOLOSALDEAN

- **Abaltzisketa.** Pilotalekuaren ondoan.
- **Aduna.** Herriko plazan, Uztartza ostatuko aparkalekuan.
- **Albiztur.** Herriko plazan.
- **Alegia.**
- **Alkiza.** Herriko plazan.
- **Altzo.** Eliza ondoan.
- **Amezketza.**
- **Anoeta.** Igarabiden.
- **Asteasu.** Ibarrazpi pasealekuan.
- **Baliarrain.** Pilotaleku ondoan.
- **Belauntza.** Hirigunean, udaltxearen ondoan.
- **Berastegi.** Elizalden.
- **Berrobi.** Ikastetxe ondoan.
- **Elduain.** Hiriguneko aparkalekuan.

- **Gaztelu.** Hirigunean.
- **Hernialde.** Herriko plazan.
- **Ibarra.** Euskal Herria 11n eta Euskal Herria 51n.
- **Ikaztegieta.** San Lorentzon.
- **Irua.** Kale Nagusian.
- **Larraul.** Pilotalekuaren ondoan.
- **Leaburu-Txarama.** Ermitaren ondoan.
- **Lizartza.** Herriko plazan.
- **Orendain.** Udaletxe atzean.
- **Tolosa.** Santa Klaran, lurren, Amarotzen, Larramedin, Usabal kiroldegian, Alliri kalean eta San Blas garbigunean.
- **Amasa-Villabona.** Kiroldegian.
- **Zizurkil.** Ibaiondon eta Ugare auzoan.

A. Imaz

Tolosaldeko Mankomunitatea, arropa eta ehun hondakinak biltzen dituen Oldberri enpresaren laguntzarekin, edukiontzi zuriak kendu eta edukiontzi berde ilunak jartzen hasi da. Kolorea bakarrik aldatzen dela argitu nahi izan dute mankomunitateak. Eskualdean 40 edukiontzi berde inguru izango dira guztira, herritarrek erabili nahi ez duten arropa bertan uzteko.

Ehun-hondakin gaikako bilketari esker, berrerabili eta birziklatu daiteke arropa erabilia eta, ondorioz, hondakin mota hori ez da zabortegietara bideratzen; egun berreskuratu daitekeelako.

Edukiontzi hauetan jantziak, etxeko arropa; oinetakoak; poltsak, gerrikoak eta bestelako osa-

Sagardo naturala Eguneroko sagardoa

ISASTEGI sagardotegia

Abeloa Toki Auzoa 20400 TELLOSA
Tel. 943 602 964 - Fax. 943 602 632
isastegi@isastegi.com
www.isastegi.com

Lizartzako Inauterien balorazio «oso positiboa» egin dute antolatzaileek

Eguraldiak lagundu ez duen arren, herritarren parte-hartzea inoiz baino handiagoa izan da zenbait ekitaldietan

Maier Ugartemendia Lizartza

Lizartzarrak otsailaren 19an hasi ziren Inauteriak ospatzen eta pasa den igandean eman zieten amaiera. Inauteriak amaituta antolatzaileek balorazioa «oso positiboa» egin dute. Aurtengo Inauterietan eguraldia lagun izan ez duten arren, horrek giroa ez dela zapuztu eta «oso giro ona» izan dela azpimarratu nahi izan dute. «Umore ona behintzat ez da falta izan» festa zoro honetan.

Aldi berean, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete base-ritarrei, puska biltzean izandako harrera ona nabarmentzeko izan baita eta beraien eskuzabal-tasunik gabe hau egitea ezinezkoa litzatekeelako. Gainera, aur-



Lizartzarrek oso giro onean pasa dituzte aurtengo Inauteriak. ENERITZ MAIZ

ten gurdien kalejira ere «oso jendetsua» izan dela esan dute, aurtengo inoiz baino talde gehiagok parte hartu dutelarik kalejiran. Festari amaiera ematen dion *ijitoa* erretzea ere «oso polita izan zen» eta «parte-hartzea ere handia izan zen», nahiz eta Inauterietako azken ekitaldia izan. Beraz,

antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete herritar guztiei, herri txikia izanda umore onaren erakustaldi bat eman dutelako. Lizartza bezalako herri txikietan horrelako egunak «beharrezkoak» dira eta herrian umore ona nagusi dela ikustea pozgarria da antolatzaileentzat.

Haur eta gaztetxoek begirale izateko lan poltsa osatzen ari dira

Uli Mankomunitateko lau herrietan begiraleen lan poltsarako izena emateko epea irekia dago, hilaren 28ra arte

M. Ugartemendia

Aurtengo Aste Santu eta Gabonetako ludotekarako zein uztailleko udaleku irekietarako, aisialdirako begiraleen lan poltsa osatzeko jendea behar dute Uli Mankomunitateko herriek, hau da, Belaun-

tzak, Leaburu-Txaramak, Gazteluk eta Oresak. Eskerak aurkezteko epea otsailaren 28an ireki zen eta hilaren 18an amaituko da. Belauntza, Leaburu-Txarama eta Gaztelun informazioa eta dokumentuak udaletxean eskuragarri egongo dira. Oresarako telefonoz edo emailaz kontaktatu behar da.

Bete beharrek baldintzak

Lan poltsa honetan parte hartzeko zenbait baldintza bete behar dira. 18 urte beteta izan behar dira edo deialdia egin den urtean zehar bete behar dira begirale-

ak. Euskara menperatu behar du, bai ahoz eta baita idatziz ere. Merzimentuei dagokienez, ez da titulazio berezirik eskatzen, baina begirale titulua edukitzea edo begirale ikastaroa egiten aritea, edo/eta Hezkuntza edo Gizarte gaiekin zerikusia duten ikasketak izatea baloratuko dira. Baita begirale lanetan izandako esperientzia ere.

Uli Mankomunitateko gazteek, herriko haur eta gaztetxoekin lan egin eta lan munduan murgiltzeko aukera bikaina izan dezakete begirale lanetan.

→ Laburrak

Independentista sarearen aurkezpena Leitzan

LEITZA > Gaur, 20:00etatik 21:00etara Independentista sarearen aurkezpena egingo dute. Aurrera elkarteko goiko aretoan bilduko dira eta Floren Aoz ere bertan izango da. Herri-tarrak aurkezpena gonbidatuta daude.

Kiroldegiko udal tasak kobratuko dira

IBARRA > Ibarra Udalak herri-tarrei 2011ko kiroldegiko abonuei dagokien udal tasaren ordainagiriak kobratuko direla jakinarazi nahi die. Kobraketak hilaren 1ean hasi ziren eta hilaren 31n amaituko dira. Epe hau igaro ondoren, bide exekutiboz kobratuko dira. Ordainagiri hauek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal izango direla ere jakinarazi du Txelo Romeo Ibarra alkateak.

Ibilgailuen udal zergak kobratuko dira

IBARRA > Ibarra Udalak herri-tarrei berri hau jakinarazi nahi die: 2011. urteari dagokion trafikoz mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren ordainagiriak kobratuko direla. Zergak hilaren 1ean kobratzen hasi ziren eta hilaren 31n bukatuko dira. Epe hau igaro ondoren, bide exekutiboz kobratuko dira, %20ko gainkarguz. Ordainagiri hauek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal dira.

Kontzejuaren kudeaketa lehiaketara atera dute

Lizitazioan parte hartzeko interesa dutenek, udaletxean eskuratu beharko dute pleguaren kopia

M.U. Elduain

Elduaingo Kontzeju taberna eskaintzan jarri du udalak. Otsailaren 18an egindako ez ohiko bilkuran, udalbatzak Kontzeju tabernaren zerbitzua arautuko duen baldintza ekonomiko administra-

tibo berezien plegua onartu zuen. Eskaintza irekiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen otsailaren 25ean eta interesatuta dauden pertsonak martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute eskaera.

Eskaintzan parte hartzeko betebeharrak, utzi beharreko bermea eta gainerako argibideak onartutako pleguan jasotzen dira. Interesa izan dezaketen pertsona guztiei pleguaren kopia banatu eta xedatutakoaren berri emango zaie, eskaintza ekonomikoaren eredu orriarekin batera.

Candanchura eskiatzera joateko aukera bikaina

Eskiatzera joan nahi dutenek hilaren 7ra arte izango dute izena emateko aukera hainbat herritako udaletan

M.U.

Belauntza, Oresa eta Leaburuko udalek eskiatzera joateko irteera antolatu dute martxoaren 18tik 20ra bitarte. Izena emateko epea hilaren 7an amaituko da. Candanchura autobusez joango dira. Ostiral iluntzean abiatu eta igandean arratsaldean itzuliko dira. Ostiaua bertako Aguilas aterpetxe-

an hartuko dute. Aterpetxe hau eskiatzeko pisten ondoan dago. Irteerarako lehentasuna Uli Mankomunitateko herritarrek izango dute. Belauntzako, Leaburuko eta Oresako herritarrek 110 euro ordaindu beharko dituzte irteerara joateko, eta gainontzekoek 135 euro ordaindu beharko dituzte. Prezioaren barnean sartzen dira gosariak, bazkariak eta larunbateko afaria. Baita *forfaita* eta aseguria ere. Norbaitek ez badu eskiatu behar 25 euro gutxiago ordaindu beharko ditu. Pertsona bakoitzak bere materiala eman dezake edo han alokatu dezake. Izena emateko aipatu udaletara deitu behar da.

Irudia > Lizartza



LEHEN TXOTXA EGIN DUTE

Karmelo Goikoetxea lizartzarrak sagardotegi berria ireki du Lizartzan, herriko Inauterien bezperan. Goikoetxea bera pilotari ohia izanik, herrikoa den Mikel Olaetxea pilotaria hautatu zuen lehenengo txotx-a egiteko. Jende asko izan zen inaugurazioan eta bertara joan zirenak «umoretsu eta gustura» atera ziren sagardotegitik. Herri-tarrek «zorte ona» opa diote Goikoetxeari eta eskerrak eman nahi dizkie «herriari bizitu ederra emateagatik». HITZA



Korrika 17 ez da Leitzaldetik pasako. Duela bi urte, udal ordezkariak lekukoa eraman zuten. ASIER IMAZ

Hamazazpigarren Korrika apirilaren 13an pasako da Tolosaldeetik

Apirilaren 7an Trebiñun hasiko da eta milaka kilometro korrika egin ostean, 17an Donostian amaituko da Korrika

Eneritz Maiz

Bi urteren ostean, bidean dator Korrika. *Ongi etorri* esanez agurtu genuen 16. Korrika eta *Maitatu, ikasi, ari...* euskalakarri esanez apirilaren 13an zeharkatuko du eta edizio honetan, Korrikak Leitzaldean kale egingo du eta ez du zeharkatuko.

Antolatzaileak buru-belarri ari dira prestaketa lanetan, hori dio behintzat Tolosaldeko arduraduna den Iratxe Apaolaza Andoaingo AEK euskaltegiko irakasleak. Ibilbidea zehaztua badago ere ordutegia ez dago guztiz zehaztua.

Apaolazak argitu duenez, «aurten Korrika, Tolosaldera Andoaindik, Adunatik barrera, sartuko da eta guztiz zehaztu gabe badago ere, Andoinera goizeko 07:00ak aldera iritsiko delakoan gaude eta Tolosara 09:00ak aldean». Oraindik azken zehaztapena egitea falta zaiela azaldu du.

Batzordeen bidez lanean

Eskualdeko herriak Tolosan elkartzen dira eta gero, bakoitza bere herrian biltzen da Korrikaren inguruko ekitaldiak antolatzeko. «Ateak zabalik» daudela dio Apaolazak eta «inork Korrikaren inguruan lanik egin nahiko balu Tolosako Lizardi elkartera gerturatzea baino ez du».

Nahiz eta Korrika herritik ez pasa, ekitaldiak antolatu eta herrian Korrikaren presentzia izateak duen garrantzia azpimarratu du koordinatzaileak. Donostian amaituko da eta bertan

egingo den jaietan lagundu nahi duenak ere izango du lanerako aukera.

Abestia, Gose taldeak egin du eta letra egiteko Igor Elortzaren laguntza izan dute. Aurten, Euskaltzaindia omenduko dute. Informazio gehiago eskuratzeko sartu www.korrika.org webgunean edo deitu Andoaingo Euskaltzaindiari (943 59 17 04).

↓ Korrika 17

BATZORDE BILERAK

- **Villabona.** Martxoak 9, asteazkena. 19:30ean udaletxeko balio anitzeko gelan.
- **Tolosa.** Martxoak 10, osteguna. 19:00etan Lizardi elkartera eskualdeko ordezkariarentzat.
- **Zizurkil.** Martxoak 21, astelehena. 17:30ean Atxulondo Kultur etxean.

Info 7 irratiaren zozketako zenbaki saritua 468 da

Tolosaldeko Info 7 Irratiko Lagunak herri ekimenak urdaiazpikoa Raku tabernan dagoela jakinarazi du

E. Maiz

Info 7 irratiak laguntzeko, euskal txerriaren urdaiazpiko eder baten zozketa antolatu zuten otsailaren 27rako. Zenbaki irabazlea 468 izan da.

Zozketako txartelean jartzen duen moduan, Tolosako Raku ta-

bernatik pasa beharko da sariaren bila. Irabazleak 15 egun izango ditu saria jasotzeko. «Gozatu urdaiazpiko eder horren zaporeaz, on egin eta jarraitu Info 7 irrati laguntzeko asmoarekin», adierazi dute ekimeneko kideek.

Ekimen honetan aurrera begira laguntzeko asmotan dauden guztiei hilaren 15ean Adunako kultur aretoan 19:30ean antolatu dugun bilerara gerturatzeko gonbidapena egin diete.

Era berean, eskualdeko herriar guztiei Info 7 irrati FM 97.7an entzuten jarraitzeko deia luzatu dute.

Emakumeen eguna ospatzeko ekitaldiak Anoetan eta Iruran

Iruran afaria egingo dute eta Anoetan afariaren gain, Xake Topaketara edo Lilatoira joateko deia egingo dute

E. Maiz

Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, Irura eta Anoetan ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte. Iruran, hila-

ren 12an afaria egingo dute eta txartelak Zarretxe tabernan erosi beharko dira 15 euroren truke. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 11 izango da. Anoetan hilaren 11n egingo dute afaria eta hilaren 9a baino lehen izena eman beharko da udaletxean edo kiroldegian. Bestalde, hilaren 13an, emakumeen arteko Xake Topaketa egingo dute Hozpel kaleko udal lokaletan. 11:00etan Donostian egingo den Lilatoira joateko deia ere luzatu dute.



Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazteko da galduta duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



10°
3°

GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	13°
HOTZENA	3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Gora eta behera Tolosako Inauteriak



APAINGARRIETAN, KALE

Iritsi da Ostegun Gizona, baina atzokoa oraindik apaingarri gutxi ikusi zitezkeen herriko leiho eta balkoietan. Amartzen, hala ere, badira gehiago, behar bada, auzo elkarteak antolatutako lehiaketak animatuta. Balkoi politenari 100 euroko

saria emango diote, bigarrenari 75 eurokoa eta hirugarrenari, 50. Fatxada koloretsuenak ere aipamen berezia jasoko du. Saria egon ala ez, ohitura polita da Inauteri egunetan herriko balkoi eta leihoak apainduta mantentzearena. R.C.

BARRAKAK MERKEAGO

Guraso askoren urteroko keza da barrakak oso garestiak direla, horregatik da poztekoa aurtengoan egongo den beherapena. Izan ere, udalak akordioa sinatu du Euskadiko Feriante Autonomoen Elkartearekin eta ondorioz, ez die leku publikoko

tasarik kobratuko. Hitzarmenari esker barrakak salneurriak %40ko beherapena izango dute. Inauterietan nahikoa diru joaten da otordu, parranda eta bestelakoetan, albiste ona da beraz, barrakak salneurria jaitsi izana. R.C.



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Iruztun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako enasen eta iritzien erantzukizunik.

Garraio publikoa

RENFE

- **Ohiko ordutegia** izango du.

TSST

- **23:00etatik 04:00etara orduro** ASTEASU-Zizurkil-Villabona-Irura-TOLOSA.
- **23:30etik 04:30era orduro** TOLOSA-Anoeta-Irura-Villabona-Zizurkil-ASTEASU (Santa Klaratik).

TOLOSALDEA BUS

- **00:00-02:00-03:30.** TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-Amezketeta-TOLOSA.
- **01:00-02:45-04:15.** TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ibarra-Berrobi-Eldua-Elduain-BERASTEGI.

HIRIBUSA

- Eguneko zerbitzua izango da, ohiko ibilbidearekin. Azken bi-daia 22:00etan izango da.

Agurrak



Zorionak!
Ugaitz Goikoetxea Altuna (Alegia).
6 muxu potolo aita, ama eta Hodeien partetik! Ondo pasa!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info



Agenda

ANTZERKIA

- **Villabona.** Gaur 17:00etan Gurrean Zirika Zirkusen emanaldia. Sarrera doakoa da.
- **Villabona.** Bihar 22:30ean *Xentimorik* Gabe antzezlan Gurea antzokian. Sarrera 8 euro.

DEIALDIK

- **Aduna.** Asvineneak antolatzen duen V. Poltsiko Lehiake-

tan izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da. Edozein kontsultarako deitu 665 738 081 telefonora edota idatzi helbide honetara: poltsiko.lehiaketa@gmail.com.

OHARRA

- **Tolosa.** Martxoaren 9a bitarte (egun hau barne) Usabal kiroldegia itxita egongo da. Villabona-Olaederra kiroldegira joateko eskatu diete erabiltzaileei.

Tolosako inauterietako
Txupinazoa zuzenean
www.tolosaldea.hitza.info
webgunean



Osteguna, martxoak 3
12:00etan



**Inauterietako
Argazki lehiaketa**

- Saria: Denak tabernan 4 pertsonentzako afaria
- Argazkiak nora bidali: argazkiak@tolosaldeko-hitza.info harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik martxoaren 9a bitartean.
- Sariduna: Martxoak 15eko alean argitaratuko dugu.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan www.tolosa.hitza.info webgunean!